# Ainhoa Akutainen “lúcu_lúcu” erakusketa azaroaren 18ra arte egongo da ikusgai Montehermoson

**2018ko proiektu artistikoen deialdian hautatutakoetatik jendaurrean jartzen den lehen lana da**

2018ko proiektu artistikoen arteko lehena, Ainhoa Akutainen “lúcu_lúcu (ikusi, begiratu)”, iralaren 28tik azaroaren 18ra arte egongo da ikusgai Montehermosoko lehen solairuan.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok eta egileak berak aurkeztu dute gaur prentsaren aurrean.

Cantok nabarmendu duenez, programaren xedea da “tokiko artisten proiektuak landu, erakutsi eta zabaltzea, horien bitartez jardun artistiko garaikidearen alorrean lantzen ari diren lengoaia eta diskurtso berriak ezagutarazi eta horietaz hausnartzearren”.

“Lúcu_lúcu (ikusi_begiratu) lanak espazio bizituaren eta espazio eraikiaren arteko zirrikituetan miatu nahi du, abiapuntu hartuta eskulturaren berezitasunekiko konpromisoa, betiere eskultura ulertzen dugularik zentzu zabalean, eta ulertzen dugularik, baita, sormen-prozesu gisa, zeinaren praxi diferentziala osotasun baten zatien arteko prozesu dinamikoak eta eraldaketa-aukerak errekonozitzeko ahalmenaren berdefinizio etengabetik eratortzen den.

Artistak leku bakoitzean aurkitzen dituen baliabideek elikatzen dute proiektua, eskultura, argazkia, bideoa eta idatzizko lanak zein grafikoak txertatuz, eta hizkuntzaren, zeinuaren eta gizarte errepresentazioen artean tartekatzen den distantziari erreparatuz.

Ibilbide horretan, pidginaren bitartez sakonduko da deskribatutako tentsioa. Pidgina hizkuntza ez-perfektua da eta, hala ere, pragmatismoaren paradigma. Pidginak lekua izan zuen euskal arrantza-tradizioan, eta baita, beste leku batzuen artean, Kuban ere, han *bozal* izenpean; bozala “*adierazpen-gaitasunik gabeko beltzen alterazio linguistikotzat*” jotzen zen. Alabaina, bozalak hautsi egiten zituen eredu genealogiko indoeuropar tradizionalak: beste horietan ez bezala, egitura zein moldeen sistematikotasun eza nabaritzen da bozalean, mestizaia linguistikoak berezko duen transmisio-prozesua eten izanaren ondorioz.

Azken batean, pentsamendu nagusi eta menderatzaileari molde alternatibo bat esleitzen dion (de)formazio bat da, haren interrogazioa, alegia.

Azalpenekiko bisitak ere egin ahalko dira: irailaren 28an, 20:00etan, egileak berak emango ditu azalpenak; urriaren 6an eta 11n eta azaroaren 3an eta 9an, Montehermosoko hezitzaile taldeak.

**Ainhoa Akutain,**

Eskulturako doktorea da, EHUtik. Artean aritzeaz gain, artearen irakasle eta ikerlaria ere bada. Zenbait beka eta sari nazional zein nazioarteko jaso ditu; beken artean nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzaren bi (ikerlarien prestaketa sustatzekoa, eta sormenaren aldekoa), Bizkaiko Foru Aldundiarena eta Etxepare Euskal Institutuarena. Sarien artean, berriz, aipatzea merezi dute Grand Prix de la Découverte, EAC Uruguay, Arte Laguna Prize, The Story of The Creative, Stockholm Fringe Festival eta IPA International.

Akutainek banakako erakusketak egin ditu, eta kolektiboetan parte hartu izan du, arte-zentro nazional eta nazioartekoetan, esaterako hauetan: Veneziako Arsenale, Montevideoko Espacio de Arte Contemporáneo, New Yorkeko Angel Oresanz Foundation, Bartzelonako Disseny Hub, Londresko Asia House eta PIAF – Peckham International Art Fair, Miamiko ArtBasel, Stockholmeko Kulturhuset, besteak beste.

# “Lúcu_lúcu” de Ainhoa Akutain en Montehermoso hasta el 18 de noviembre

**Se trata del primero de los cuatro trabajos seleccionados en la convocatoria de Proyectos Artísticos 2018**

El primero de los Proyectos Artísticos 2018, “lúcu_lúcu (ver_mirar)” de Ainhoa Akutain, se expondrá en la primera planta del Centro Cultural Montehermoso desde mañana 28 de septiembre hasta el 18 de noviembre.

Lo han presentado hoy en rueda de prensa, la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estibaliz Canto, y la autora del mismo.

Canto, ha destacado que el objetivo del programa “es la producción, exhibición y difusión de proyectos de artistas del contexto local, a través de los cuales se da a conocer y reflexiona sobre los nuevos lenguajes y discursos en el ámbito de la práctica artística contemporánea”

“Lúcu_lúcu (ver_mirar)” pretende explorar en los intersticios entre el espacio vivido y el espacio construido desde un compromiso con la especificidad de la escultura, entendida en su acepción expandida, y como proceso de creación cuya praxis diferencial deviene de la continua redefinición de su potencialidad para reconocer procesos dinámicos y posibilidades de transformación que median entre las partes de un todo.

El proyecto se nutre de los recursos que la artista encuentra en cada lugar e incorpora la escultura, la fotografía, el vídeo y obras textuales o gráficas, prestando atención a la distancia siempre interpuesta entre el lenguaje, el signo y las representaciones sociales.

En este recorrido, la tensión descrita se profundizará mediante el pidgin, lenguaje imperfecto y, sin embargo, paradigma de pragmatismo, que encontró su lugar en nuestra tradición pesquera vasca y cuyo ejemplo cubano lo encontramos en el bozal, del que se llegó a considerar que “*no era más que las alteraciones lingüísticas del negro que no sabía expresarse*”. Sin embargo, el bozal rompe con los tradicionales modelos genealógicos indoeuropeos apreciándose la no sistematicidad de estructuras y formas, resultante de un proceso de transmisión interrumpido propio del mestizaje lingüístico.

En definitiva, una (de)formación que asigna una forma alternativa a la disposición del pensamiento dominante, su interrogación.

Se podrán hacer además visitas comentadas a la exposición, el mismo 28 de septiembre, a las 20 horas con la propia autora, y los días 6 y 11 de octubre, y 3 y 9 de noviembre, con el equipo de educación de Montehermoso.

**Ainhoa Akutain,**

Doctora en Escultura por la UPV/EHU, compagina su práctica artística con la docencia e investigación en arte. Ha recibido varias becas y premios nacionales e internacionales, destacando la beca para la formación de investigadores y la ayuda a la creación, ambas del Gobierno Vasco. Así como de la Diputación de Bizkaia y del Instituto vasco Etxepare. Y premios como Grand Prix de la Découvert, EAC Uruguay, Arte Laguna Prize, The Story of The Creative, Stockholm Fringe Festival o IPA International.

Akutain ha expuesto en centros de arte nacionales e internacionales, individual y colectivamente, como Arsenale de Venecia, Espacio de Arte Contemporáneo de Montevideo, Angel Orensanz Foundation de Nueva York, Disseny Hub de Barcelona, Asia House de Londres, Art Basel Miami, Peckham International Art Fair, o Kulturhuset de Estocolmo, entre otros.